

atera gorria!



bbk=

www.bb.es

BBK26=
abantaila eta deskontu pila

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
beirtoa

2005eko AZAROA
82. zkia. DOAN

**Begoñan bisitari
Blog aroa
Lutxo Egiaren
liburu berria**

Izaskun Guarrotxena

*“Euskal emakumeon
eskubideen gutuna
egin nahi dugu”*





San Francisquito elixa egiteko beharrak (1964)

1964ko maiatzaren 15a. Garabia eta iraulki kamoia lurra ataraten dagoz San Francisquito elixa egiteko asmoz. Urrutian, Morroko meategia (antxineko Larragaburu mendia), txabola bat aurrean parrak dekozana eta etxeak Santutxu kalearen akabuan, Ollerías baino arinago.

Argazkia San Francisquitoko aita Romanek itzi deusku.



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



karrajua

Euskaltegien munduan dabilen baten bloga. Mundu honetan burukominez gainera, hainbat gauza pasatzen zaizkigu burutik. Inoiz karrajua juntatzen garenean elkarri botatzen dizkiogunak. Hemen botako ditut neureak karraju honetatik norbait pasatzen bada edo.

2005/11/11

Durango bazkaldute (edo)



Gaur Durangoz ibili gara egun guztian, "Mintzapraktika egitasmoak" jardunaldietan. Lehenengo impresioa: jende asko, giro ona eta gustura, gauza berriak entzun eta sektore bitario jendea elkarrekin behingoa (euskaltegiak eta euskara elkarteak).

Boteprontoan azpimarratzeko. Ifaki Arrutiren kokapena. Zehazteko eta eztabaidatzeko asko oraindino nire ustez, baina euskaltegiek normalizazio prozesuan jokatzen duten paperaz hausnarketa landua eta behar fina. Hemendik aurrera honetaz hausnartzen jarraitzeko abiapuntu izango dugulakoan nago. Berze guztia ere polito, neu behintzat ez naiz asperu, eta horrelako

Norik egin du hau?

Honek: Binito. Eta nondik dator? Santutxu, Begoña, Bilbo, B.

Lehenengo mezuak

- Durango bazkaldute (edo)
- Mahatsberriko blogetik
- Alpuz
- Praktika idazteko

▶ Iritzia	4	▶ Mahatsberriak	20
▶ Begoñan bisitari	5	▶ Kirolak	24
▶ Begoña eta euskerea	8	▶ Hezkuntza	26
▶ Durango Zain	10	▶ Oiz mendia	27
▶ Blog Aroa	12	▶ Lutxo Egiaren liburu berria	28
▶ Elkarrizketa: Izaskun Guarrotxena ..	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30
▶ Inkesta	19		

Ontxe dabiltezen honeik (Bertonekoak ez orain) fuboleroak negar baten Begoñeko Amari errezaten ta errogaten segundara bajau ez deitzen ta depasoan aber Ama Birjiniak berak urteten badau kanpofubolera,... Da honeik (orain bai) Bertonekoak zer ekarri, da Begoña Bilbo baino lehenagokoa dala. Hori neuk be jakin dot ba! Zelan? Fazilago da aldatz behera jaustie aldatz gora etortie baino. Da oin bai, oin negarretan datoz hona, aldatz gora egittien oin ez jakie kostaten, ez,.... Dedioooo! Ointxe akordau bai!

Oin Ama Birjiniak ein biherko leuskidxe danari penitentzidxe imini: urte guztidxe Katedralera barik Basilikara errezaten. Da Begoña kluba lehenengora ta Txanpionligera be bai. Ajoderse!

Da aittu, danak errezaten Athletic-engaittik, da batan bateri ein gure dotzie kartzelan sartu eleixe ondoto martxau gure ez izetiegaittik. Honeik bilbainoak ixitekoak direz ba! Katedrala jagon bai, baie ermittek fuera!

Ama birjiniari eskatuten datoz ganera. Ama birjiniari bai, ze euren amagaz da beste andra guztidxeri eitten dotziezen kalamidadiak eta barbaridadiengaittik ez dira asko etorten errezaten.

Da oin ein behar direz bisita giaduek Begoñen ziher, aber honeik errezaten datozenak, hamen daozela aprobetxaten badaurie ikusteko hameko ermittek zelan daozen ta hamen katedraletik aparte parrokidxe gehidxago dagozala jakittek.

Matzorridxok, barrez – Matzorri finek, ze bestiek ensegi-dan jausten direz aldatz behera– errezuetan ta negarretan barik ekinien dabiltezen. Liburuek ataten han da hamen –ta ez prezisamentien errezu-liburuek–, andriek erreza barik aleluyak kantau deidxezen biherrien beste batzuk, da beste batzuek bigarrena bajau edo ez bajau preokupau barik, aber ixten badotzie olgetan sikieran.

Oin dabiltezen ganera bisita giaduek eitten gurien. Aber baten batek kusten badau hamen dekoguzan Via Crucisak.

Firmatue: Ermitte bako ermitañoa

GURE BAZTERRAK

FUNIKULARRAREN PLAZAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako eleizatearen mugarririk batetik hur aurkitzen dogu Funikularraren plaza. Izan bere, plaza honeri izena emoten deutso handik Artxandako tontorrera joateko egindako ibilgailuaren izenak berak. Beraren sarrera Castaños kalean dago, eta Mandobide kalean dauka amaiera. Horretara, esan behar da, aurten bete dirala 90 urte Begoñako Errepublikatik Artxandara zuzenean eta ibili barik joateko egindako funikularra egin zanetik. Izan bere, Artxandako funikularra 1915eko urraren 7an zabaldu zan. Bide batez, jakingarri bat emongo dogu, geure irakurleak baten bateri erantzun bat emon behar badeutso, zuzen eta artez erantzuteko: 300 metroko aldapa edo pendiza dago Funikularraren plazatik Artxandako tontorrera.

Artxandako funikularraren eretzean, badira jakingarri batzuk gaur egun gomutazo nahiko

neukezanak: alde batetik, jende askok uste leikenaz beste, funikularra egin zan, Artxandan 1915. urtearen aurretik bertan behera lagatako lekua denbora-pasa bihurtzeko Begoñako eleizateko eta Bilboko uribilduko biztanleentzat. Artxanda, beste alde batetik, egin zanean, Begoñako Errepublikako mugartearen barruan egoan, eta Begoñako eleizatearen mugartean egin zan kasino-jatetxe handia, eta hari jarri jakozan ikuskizunak, jendea hurreratu eragiteko. Estatistikaren aldetik, esan behar dogu, hori guztia, hau da, funikularraren geltokia, kasino-jatetxea eta irrizatze-pista, sartu zala 162 064 metro koadroko orubean. Orduan egin zan kasinoak, asmatu geinkean legez, etxe handia izan behar eban: eraikin erdizirkularra, solairu bikoia, eta goienean terraza eukana; horreek ezeze, baegoan maila-di handia eraikinaren zati nagusira heltzeko.

Amaitzeko, jakingarri orokorra emon gurako neuke funikularraren ganean. Izan bere, horrelako garraio-tresnak asmatu ziran, %10etik gorako aldapak gairitu ahal izateko. Honelako makinak arrakasta izan eben XX. gizaldia- ren hasieran, batez bere, Kantauriko erlaitzean, eta Bizkaian bi ditugu izentsu: Artxandakoa bera eta Larrainetakoa. Garraio-mota honen asmatzailea Torres Quevedo Sanandereko ingeniaria izan zan (1852-1936).

GOTZON LOBERA REVILLA

**Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta.:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Eneritz Ibarondo,
Nerea Aburto,
Iratxe Ruiz,
Unai Cuevas,
Itxaso Perez

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Alberto Ugarte, Iñaki
Gaminde, Igor M. de
Vidales, Santutxuko
Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,
Jose Otazua,
Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:**
Koldo Urrutikoetxea,
Arrate Diez
LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98
ALE KOPURUA:
1.900

Begoña, errepublika izandako auzotik bisitaldi gidatua

AZAROAN BASILIKA ALDEKO BAZTERRAK ERAKUTSI DITUZTE

Gune turistiko berriez gain, Bilboko auzo eta kaleetan badago zer ikusia. Behintzat hori da 'Bilbo: hil bakoitzean auzo bat' izeneko bisitaldiek lortu nahi izan dutena: gure hiriko auzoetako txoko eta bazter esanguratsuenak, eta ez derrigorrez ezagunenak, hiritarren begietara agertzea. Azaroan Begoñaren txanda izan da.

*Testua: Nerea Aburto
Argazkiak: Iñigo Azkona*



Bilboko Udaleko Kultura eta Euskara sailak antolaturik, lau hilabetez, hiriko lau auzotako kaleak bisitariz bete ditu programa honek. Deustuko Erribera eta Zorrotzaurre, Sarriko eta San Inazio, eta Alde Zaharra bisitatu ostean, azaroan Begoñan izan da. Hilaren 3a eta 26a bitartean, astean hiru egunez (ostegun, ostiral eta larunbatetan, goizez eta arratsaldez), euskaraz eta gaztelaraz antolatutako bisitaldietan, Begoñako elizate zaharreko historia hobeto ezagutu ahal izateko aukera izan dute hainbeste pertsonak. Gutxi gora behera bi orduz auzoko kale eta txokoetatik egindako ibilbidearen kronika da hau.

10'15/ BASILIKAN


Larunbata da, Begoñako basilikaren erlojuak hamarrak eta laurdenetako doinuak jo berri ditu, eta minutu batzuk lehenago elizaren inguruan hotzari aurre egiten egon diren hamar bat pertsona lotsati xamar hurbiltzen dira bisitaldiko gidaria dagoen lekura. Bikote heldu pare bi, familiaren bat, lagun koadrila bat... guztira hogeit hamar pertsona biltzen dira larunbat goiz hotz honetan eliza aurreko plazan.

Begoñako auzoaren bisita gidatua historia pixka batekin hasten da, hain zuzen, Begoña Bilboko auzoen artean historia gehien duena dela esan baitaiteke, 1924 urtean Bilboko auzo bihurtu aurretik, une historiko garrantzitsuen testigu izandako elizatea izan baita (ustezko jatorri erromatarra, Bilboko sorrerako hiri-gutunean aipamena, gerra karlistak, industrializazioa,...)

10'25/ ELIZA

Begoñako basilika XVI. mendean eraiki zen baina bere aurrealdea eta dorrea 1902 urtean berreraiki zituzten azken guda karlistan liberalek guztiz suntsitu eta gero. Berreraikitze honen hasieraren oroigarria atariaren eskuinaldean ikus daiteke, eskailerak igozen hasi aurretik. Bertan 1902 urtean, Begoñako parrokoa Juan Cruz Unzeta zelarik, jarritako lehen harria ikusi baitaiteke.

Eliza barrutik ikusteko momentua da orduan eta goizeko hotzaz babesteaz gain, bisitariak Sevillatik XVIII. mendean ekarritako Murillo pintorearen margolanen kopiak, Ereñoko marmolaz egindako bataiarria, sakristia, eta nola ez, Begoñako amaren imajina ikus



dezakete. Azken horri dagokionez, orain dela urte gutxi zaharberri eta gero, berezko ile hori eta aurpegi zuria agerian gelditu dira, beltzarana zela usten zuten askoren harridurarako.

10'55/ JUAN XXIII PLAZA

Berriro kalera ate nagusitik irten da, basilika osteko plazara abiatu da taldea. Plaza elizatearen erdi gunea izan zen bere garaian, bertan errepublikaren etxea (Udaletxea) eta eskolak zeudela. Horiek 1957 urtea arte zutik iraun zuten, Zumalakarregi etorbidearen tunelak egin zituzten arte alegia. Horrez gain, errepublikako plaza ganadu feria ugariaren lekua izan zen, Begoña nekazari herria izanik, abeltzaintzak garrantzi handia baitzuen.

Plazatik bertatik, eta azpiko errepperantz begiratu, eskuinaldean, oraindik zutik eta ondo zaindurik irauten duten 1900 urteko etxe bi ikusi daitezke, Avenida Hotelaren ondoan. Bata ingeles estilokoa eta bestea, ezkerrean dagona, euskal estilo berrikoa.

11'15 / UGARTEBURU


Ibilbideak San Isidro kaletik jarraitu du. Bertan 1960 hamarkadan eraikitako etxeen aurrez aurre, Ugarteburun 1930 hamarkadan altxatutako 'pianoaren etxea' dago. Bere ondoan, 1940 hamarkadako beste bi etxe ikusten



dira. Eurretari baten auzoko azken mahastiak daude. Nola ez gogoratu orduan gaur egungo auzo errepublika zenean Mahatserria modura era ezaguna izan dela eta oraindik ere badela? Bisitariak txakolindegia ere gogoratu dituzte.

Begoñako auzoa zeharkatzen duen kalerik nagusia Zumalakarregi etorbidea da, auzoaren historiarekin hainbeste lotura duen Tomas de Zumalakarregi jeneral karlistaren izena duena. Hori zeharkatuz, Etxebarria parkera

bertan



heldu dira bisitariak eta bertan 40. hamarkadan eraikitako fabrikaren tximiniarik altuenari begira industriaren garai hobeak eta txarrak datozkio burura askori.

11'40/ DOLARETXE

Dolaretxe auzorako bidean Begoñako hilerria ikusten da. XIX. mendearen hasieran eraikia, etorkizun iluna du orain, bertatik kentzeko asmoa baitago. Bertan lurperaturik, Euskal herriko lehen emakume argazkilaria dago: Eulalia Abaitua begoñatarra. Dolaretxe auzoa 1912 urtean Enri-

que Epalza arkitektoak eraiki zuen San Vicente Paul patronatuaren bazkideentzat. Ingeles eta euskal estilo berriko etxeak dira eta bertan bizi ahal izateko katoliko eredu argia izatea derrigorrezkoa zen.

Gurutzeko auzoa ere Epalza arkitektoak egin zuen baina Patronatuaren langileentzat. Bertan bizitzeko baldintzak ere zuzentasuna eta katolikotasunaren eredu izatea derrigorrezkoak ziren eta agian horregatik, eta auzoko etxeak, Vatikanoa bezala, horiz margoturik zeudelako, Auzo Horia bezala ezagutu zen urtetan.

11'55/ MALLONA

Gurutzeko auzoaren ondoan, Mallonako galtzadak amaitzen diren leku berdinean, Bilbo hiriko kanposantu zibila zena kokaturik egon zen. Gaur egun hilerriko bi ate eta lurperatzaileen etxeak bakarrik diraute zutik, Mallonako futbol zelaietan.

Liberalismoaren aldeko monumentua bisitaldiaren azken urratsa da eta dagoeneko bisitariak eguzki izpien epeltasuna senti dezakete. Begoña eta Bilbo arteko liskar ugariak 1874 urtean amaitu ziren, hiriak irabazitako azkeneko setioarekin. Liberalek, euren garaipena ospatu nahian, oraindik ere maiatzaren 2an batzuek bisitatzen duten monumentua eraiki zuten. Urteetan Mallonako hilerrian egon eta gero, gaur egun Bilbora begira dago, jatorrizko itxurarekin antz handia ez badauka ere.

Bukatu da, ia bi orduz bidai lagunak izandakoak isilean banatu dira, agian ibilbidean gehien gustatu zaien txokotik berriro pasatzeko asmoarekin edota etxean entzundakoak egia zirela frogatzeko aukera izan dutela konturatzean harriturik, pozik. Baina, zalantzarik gabe, Begoñako auzoak denei emango zien zer pentsatu, herri baten historiaren lekuko izan diren hainbeste txokok, nahi eta nahiez, gogoeta ekarri behar dutelako.

Momentuz, Begoñan egin diren bisita hauekin 'Bilbo: hil bakoitzean auzo bat' ekimena bukatutzat jo dute, nahiz eta udaberriaren beste auzo batzuk ezagutzeko aukera egongo delakoan daude. Orain arteko bisitaldiek izan duten harre-ona ikusita, imajinatu daiteke hurrengoan ere, hotzari, euriari edota eguzkiari aurre eginez, hainbeste pertsonak Bilbo hiriko gida turistikoetan agertzen ez diren txoko berezietan bila joateko deialdi honi pozik erantzungo diotela.

Garraioak

Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33


Sugea taberna Iturriaga, 92
 kazolatxoak eta pintxo goxoak

PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!

BEGOÑA ETA EUSKERA

Gauza jakina da Diego Lopez Harokoak Bilbo hiria sortu zuenean Begoñako lurretan sortu zuena. Beraz, Bilbo izan baino lehen Begoña bazen. Baina ez da hori Begoñako izena dakarren agiririk zaharrena. Bizkaiko beste jaun batek, Lope Diazek, 1162an Gaztelugatxeko Doniene premostratenseen ordenari eman zionean Begoña aitatu zuen, leku izen gisa.

BILBO BAINO ARINAGO, BEGOÑA



Begoña aitatzten duen lehenengo agiria.

Egia esanda, mahatsorririk zaharrenak orain dela 6.000 urtekoak ei dira. BERTO-Nen haien berri eman genuen Artxandako hilobi megalitikoaren gaineko erreportaje baten. Ganguren-go Irumugarrietako dolmenak artzaintzan zebilen giza talde baten kulturaren zati bat dira. Zati ikusgarria, bai horixe, gure zabarkeriak eta ezjakintasunak hondatu izan ez balitu.

Artzain multzo haiek mende asko eman zituzten gure inguruetakotako mendietako tontorretan. Adituek diotenez, erromatarren garaian ere Ibaizabaleko bokalean giza taldeak bizi ziren, Trianoko burdinak eta Bilbon topatutako txanponak (II-III mendekoak) erakusten duten moduan.

Baina Begoñaren berri arteza edukitzeko XII. mendearaino jo behar dugu. Izan ere, 1162an Lope Diazek -Bizkaiko jaunak, alegia- agiria eman zuen Gaztelugatxeko San Juan (Doniene diote Bermeon) ermita ordenari jolatu baten esku utziaz. Testuan donazio hori egiteaz gain, beste 'opari' batzuk eman zizkien fraideei. 'Opari' horiek pertsonak ziren, nekazari jopuak hain zuzen ere. Erdarazko izenarekin aitatu zituen: 'collazo'. Izan ere, sasoi hartako Bizkaian, XVI. mendea heldu arte gertatu zen bezalaxe, bizkaitar guztiak ez ziren libre eta nobleak,

eza hurrik eman ere. Noblezia ondo zehaztuta zegoen eta baserriarrik gehienak Bizkaiko jaunaren edo lekuan lekuko jauntxoek ziren. Euren artean 'collazo' berbarekin izendatzen zituztenak ziren zapalduen zeudenak.

Erdi Aroko agirietan ez zen batere araroa jaun feudalek elkarri nekazariak ematea. Jose Angel Garcia de Cortazar historialariaren iritziz, horrek esan gura zuen baserriar horrek ugazaba berriari 'petxo' bat ordaindu behar ziola aurrerantzean.

Bada, 1162ko agiri horretan, Gaztelugatxeko Donienez gain, Lope Diazek nekazari batzuk ere eman zizkien fraideei, tartean, "unum collazum in begonna". Begoñako jopu bat, hain zuzen ere. Beste leku batzuetakoak be bai: Arratia eta Gernika, berbarako.

Begoñako lehenengo aitamena dakarren agiria Espainiako Historia Artxibo Nazionalen dago eta, dirudienez, Burgosko monasterio bateko paperen artean dago, Nuestra Señora de la Vid monasterioa hain zuzen.

ETA BILBO SORTU ZEN

Adituek diotenez, Ibaizabaleko behe-arroan demografi hazkunde eta asentamendu berriak sortu ziren X. men-



Bilbo XVI. mendearen erdian. Goialdean, Begoñako eliza eta baserri batzuk.

detik aurrera. Herrixkak sortu ziren ibaitik hur: Barakaldo, Sestao, Galdakao, Deustua eta Begoña, besteak beste. Normala izan daiteke, beraz, XII. mendean Begoña agerriar azaltzea.

Herrixka haiek etxe multzo txiki bat baino ez ziren eta ardatz gisa, eliza bana. Sasoi haietan merkataritza zirkuituak suspertuta eta nekazari hazkunderen gerizpean artisau eta merkataritza taldeak sortuta, baldintza berriak egokitu ziren Ibaizabaleko bokaleko barrubarruan portu bat eratzeko. XII. mende horren akabuan ba ei zen Bilbo izeneko portua, Santiago elizaren inguruan antolatuta.

1300 urtean Diego Lopez Harokoak eman zuen Bilbo hiri gisa sortzeko gutuna. "Con placer de todos los vizcaynos fago en Bilbao, de parte de Begoña, nuebamente poblacion et villa que le dicen el puerto de Bilbao...", idatzi zuen. Begoña Bilbo baino lehen, beraz.

Eta agiri hartan muga zabalak eman zizkion hiri sortu berriari. Ia-ia gaur egun Bilbok dituenak. Honelaxe zehaztu zituen Diego Lopez Haroko hark Begoña aldeari dagozkionak: "et al bado de Echabarria fasta encima de

la sierra de Ganguren et dende fasta el puntal del fondo de Deusto en derecho de Luchana ansi como habedes partidos los terminos et amojonados con todos los de Zamudio et de Alfoz de Uribe".

Hala ere, auzi eta ika-mika bete sei mende behar izan zituen Bilbok muga horiek gauzatzeko. Albo-herriok (Begoña, Deustua eta Abando) ez zeuden prest Bilbon sartzeko. Baina hori beste baten kontatuko dugu.

Azken ohar bat. Agiriak badakar Begoñaren gaineko aitamen gehiago: "Et do et otorgo bos que haiades por vuestros vecinos los mios labradores que yo he dentro de estos terminos sobre dichos á buestra vecindad francos et libres et quittos ansi como bos los sodes en tal manera, que el Monesterio de Begoña non pierda nada de sus terrenos et de las diezmas et de los otros derechos que á él pertenecen; et que haia al meitad Santa María de Begoña et la otra meitad Santiago de Bilbao". Beraz, Bizkaiko jaunaren menpeko nekazariak Begoñan, Abandon eta Deustuan Bilboko hiritar gisa gelditu ziren eta hamarrenari dagokionez, erdibana Begoñako elizaren eta Bilboko Santiago elizaren artean.




Kaldenapeko euskal kultur gunea

www.kaldenapeko.com

txakur kalea, 1. 48005 bilbo • euskal herria tfnoa: 94 416 40 99

DURANGO ZAIN

Urtero lez hainbeste mahatsorriren lanak izango dira disko eta liburu azokan



Durangoko hitzordura liburu bakar batek hainbeste mahatsorri eramango ditu. Izan ere, azaroaren 23an Karmelo plazan bertan aurkeztutako 'Ametsen baratza' ipuin, olerki, marrazki eta irudi biltegi polita da. 'Sorgintxulo gaztetxean ereindako berbak' paratu diote azpititulu Jose Luis Zumetak egindako azal bizi-bizian. Bada, barruan, Euskal Herriko bazter guztietako idazleen artean Uribarriko Javi Cillero, Begoñako Axel Luzarraga eta Lutxo Egia, Txurdinagako Urtzi Urrutikoe-txea eta Miren Agur Meabe, Zurbarango Juanra Madariaga eta egun Santutxun

**Urtero lez,
BERTON
ere
Durangon
egongo da**

Abenduaren 7an zabalduko ditu atek Durangoko Azokak Landakoko eraikinean eta, urtero legez, mahatsorriek ez dute huts egingo. Han egongo dira euren lanekin eta, jakina, handik agertuko dira literatura eta musikazale gisa. Aurtengo uzta ez da makala.

Testua: H. O.
Argazkiak: Berton

bizi den Uxue Alberdi topatuko dituzue.

Irudigintza arloan ere mahatsorriak ez dira gutxi, besteak beste hor daudelako Alain M. Urrutia, Adur Larrea eta BERTONeko Iñigo Azkona. Liburu Elea argitaletxearen eskutik plazaratu du Santutxuko Gazte Asanbladak.

Zer esan handia emango badu ere, 'Ametsen baratza' ez da mahatsorrien produktu bakarra. Esate baterako, Santutxuko Mikel Zabala historialariak euskal ikasle mugimenduaren historia batu du liburu baten. 'Ikasi eta irauli' goiburua darama argitalpen horrek eta Txalapartak plazaratu du. Zabalarekin batera Igor Arroyo eta Mikel Soto dira lanaren arduradunak.

Jakina, Durangon egongo da Lutxo Egia bere bigarren nobelarekin. Zenbaki honetako kultur orrietan horren

berri luze eta zabala aurkituko du irakuleak.

ENPRESA ARLOAN

Badira gehiago, bai horixe. Berbarako, 'Ekonomia eta enpresa antolamendua' liburua, Gaiak argitaletxeak kaleratu berria. Liburu horretan enpresaren gaur egungo errealitate konplexua modu erraz eta didaktikoan agertu dute. Egileak bi dira: Unai Martinez Lizardui eta Alain Urizar mahatsorria. Enpresa eta bere barruko antolamendua, ekoizpena, administrazioa, finantzak... atal horien gainean euskaraz argitalpen gutxi daudela ikusita gazte biok animatu eta lan hori eman dute argitara.

Bada gehiago ere. Uribarri aldean bizi da Josu Naberan arteagatarra. Euskalgintza munduan ezagun-ezaguna da eta arinago 'Sugaren iraultza' eta 'Antzinako euskaldunen egutegia' liburuak plazaratu ditu. Durangora bere azken liburuarekin joango da Naberan, 'Hitzen koba'. Bertan euskararen jatorriak aztertu ditu eta egun moda-modan dauden teoria batzuk hankaz gora laga ditu. Esate baterako, euskararen berba asko latinetik datozela defendatzen duena. Bere ustez, hori ez da logikoa eta erra-



'Ametsen baratza' liburuaren aurkezpena.

zagoa da hitz horietarik asko berez euskaratik sortu izana.

Naberanek liburua eramateaz gain aurkeztu ere egingo du. Egitarau ofizialaren barruan dago aurkezpena, abenduaren 8ko arratsaldeko 5etan. Naberanekin batera Alfontso Martinez Lizarduikoa eta Josu Goiri egongo dira. 'Hitzen Koba' Txalapartak argitaratuko du.

Eta guzti hori gutxi balitz, urtero lez, BERTON ere Durangon egongo da, Begoñako elizate zaharreko kontuak euskal kulturaren agertoki nagusira eramanez. Topagunearen postuan edukiko duzue.

BERROGEIGARRENA

Aurtengo Durangoko Azoka berrogeigarrena izango da, lehenengoa 1965eko azaroan egin zuten eta. Gerediaga elkarteak sortu zuen eta zapatuko merkatua aprobetxatu gura izan zuten. Domusantu egunean izan zen, Andra Mari elizaren arkupean paratu zuten eta guztira hemeretzi saltoki eduki zuten azokak.

Egun bateko azoka apal hark segida izan zuen hurrengo urteetan, beti Andra Mari elizaren arkupeetan. Datu batzuk ematearren, lehenengo azokaren aurrekontua 100.000 pezetakoa izan zen. 1966an azokako lehenengo egunean 680 liburu eta 179 disko saldu zituzten. 1969an, hogeita bi saltoki jarri zituzten, 870 liburu eta 138 disko salgai ipiniaz.

Jakina, sasoi hartako agintariei ez zitzaien askorik gustatu ideia eta trabatzen ahalegindu ziren. Azkenean elizpean egiteko baimena kendu zuten baina horrek kaltea baino mesedea egin zuen, merkatura aldatu ziren eta. Hantxe egon zen 1996 urtera arte. Txiki gelditu zenez, bestelako konponbideak bilatu behar izan zituzten eta, urte batzuk karpapean eman ostean, 2003tik Landakoko eraikinean dago azoka, milaka euskaldunen zain.



Azoka Andra-Mariko elizpean egiten zeneko irudia. (Foto Sol)

BLOG AROA

Interneteko bitakora pertsonalen fenomeno moda-modakoa gurera ere heldu da

Blogak pol-pol sortzen ari dira azkenaldion interneteko ziberespazioan. Bitakora pertsonalak dira, izan, baina gero eta erabilpen gehiago ematen dizkiete. Orain norberaren gogoeta, ibilera edo zaletasunen berri emateaz gain, enpresa baten jarduna azaldu, kirol txapelketa baten nondik norakoak kontatu edo denda baten eskaintzak lau haizetara zabaldu egiten dituzte. Blogak euskaraz ere oparo sortu dira eta tartean mahatsorriak ez dira gutxi, ez horixe!

Testua: **J. Larrazabal**

Moda-modako kontua da gaur egun bloga sarean, are gehiago euskaldunon artean. Interneteko bitakora pertsonalak gero eta tresna erabilgarriagoak dira. Bloga norberaren gogoetak haizatzeko lekua dela pentsa genezake, eta izan sarritan horixe dira. Baina baita askoz be gehiago. Enpresa batzuek euren lan prozesuen berri emateko erabiltzen dituzte. Goierna egunkariak blog bat eskegi du bere berriztatze prozesua zelan egiten duen

Edonork egin ahal du. Interneteko konexioa daukan edozein ordenadoretik egin daiteke eta hiru minututan zeure bloga sortu zenezake

Mahatserriko blogistika

Euskaltegien kontua apur baten alde batera utzita, [bloglines](#)-eko zerrenda egiten nabilela, konturatu naiz hemen gure auzunean bagarela blogista batzuk, elkarren ezagunak, eta batzuk askoren ezagunak ere bai.

[Berton](#) aldizkariak lehengo hilean Mahatserriko webguneen zerrenda bat publikatu zuen. Han zeuden batzuk, baina blog pertsonaletan ere baten bat falta zen.

Gure artean pionero, nahiz gazteena izan, [Josu Martinez](#) enfant terriblea daukagu. Mahatserriko mugatik gero eta barrurantzago dabilkigun [Iñaki Peña](#) euskaltzaleak ere blog aktiboa darabil. Atzo bertan (berandu baina) [idazlerik mahatsorrienaren](#) bloga deskubritu nuen. Euskal blogosferako Mahatserriko probintzian gehiago ibiliko dira seguruenik, ea deskubritzen ditugun.

Bitartean, gurera hilean behin etortzen den [bisitaria](#) blogistikaren ohorezko dibisioan sartu zen aspaldian. Eta [sinsorgoren](#) bat ere badabil, baina hau beste historia bat da.

Jende ezaguna euskararen munduan dena. Gaur berbalagun lagun bi gehiago ezagutu ditut, eta ordubete ta erdi luze ibili gara bost lagun abarketari ematen ([hemen](#) daukazue nire berbalagunetarikoa bat prosierto). Jende berriarekin ibiltzeko gustua ematen du ba. Eta horrelakoak gurearen moduko auzune handian asko egon behar dira. Blogosferan ere horrelako jendearen beharrea gaude, baita auzunean ere, eta bietan bada hobeto.

posted by [karraju](#) @ 00:47 0 comments links to this post

2005/11/03

azaltzeko. Beste batzuek promozioa egiteko erabiltzen dituzte. Berbarako, ETBk 'Mi querido Klirkowsky' saioa zabaltzeko bloga ireki zuen, benetako pertsonaia zela itxura eginaz eta, bide batez, blogari eta internauta batzuen haserrea eraginez.

Politikagintzan ez dira ezezagunak: Ibarretxe lehendakariak ere berea dauka sarean iragan martxotik hona.

Baina bada gehiago. Frantziako gazte matxinada berrian blo-

gak protagonista izan dira, gazte- en arteko komunikazio bide bilakatu dituztelako, poliziaren aurkako mezuak zabalduz. Ordaine- an, blogari batzuk atxilotu eta bitakorak itxiarazi zituzten fran- tses agintariak.

Berez bloga zer den? Adituek diotenez, weblog berbatik ei dator eta hasieran internauta bakoitzak sarean egindako ibilbi- deen berri ematen zuen. Batzuek euren ibilbide horiek on-line eskegitzea erabaki zuten, beste batzuei lagungarri izango zitzaiz- kielakoan. Denboraren poderioz, bitakora pertsonalak bilakatu ziren, norberak nahi duenean sarean eskegitzen dituen testuak, irudiak, loturak,...

ALDERDI BI

Bada, blogen fenomeno hori gure- an da. Aitzindarienak zortzi hila- bete darama interneten. Azkenal- dion, ostera, erritmoa azkartu da. Azaroan Berria egunkariak bere




kazetari batzuen blogak eskegi ditu sarean. Aurretik, eibar.org eta goiena.net web guneetan blog komunitate gero eta biziagoak zeuden. Azpeitiko Uztarrria herri aldizkariak be berea sortu du eta Deustuko Unibertsitateak bere Euskal Filologiako bitakorak ikus-

gai paratu ditu interneten. Leku batzuk baino ez dira. Kazetariak, idazleak, kirola-

Zure bloga di-da baten

Blog bat egiteko tentazioa badaukazu, hona hemen zer egin behar duzun. Erraza-erraza da, berbarako, blogger.com web gunearen bidez egitea. Bertara jo, izena eman, datuak bete eta bost minututan zuk nahi duzun izenarekin eta itxurarekin sarean edukiko duzu zure bitakora perso- nala. Bakarrik falta zaizu testuak bidaltzen hastea eta... erantzunak jasotzea. Blog on!



ABENDUKO ZUBIA (3-11)

ITALIA	595,00 Euro
PORTUGAL	480,00 Euro
AMSTERDAM	340,00 Euro
PARIS	340,00 Euro

mikelizargi@euskalnet.net
Izargi Bidaiak

GRUPO STAR VIAJES
www.ibiltari.com

Iturriaga, 69
Tel. 94 473 00 45
Fax 94 412 07 38
48004 SANTUTXU - BILBO

KAIKU
Munduko Herrien Etxea

Arzuaga 1 Santutxu

ADI ASESORIA
FISCAL, CONTABLE, LABORAL, JURIDICO, MERCANTIL

Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza

santutxuko herriko taberna
Iturriaga 96.

Gosari bereziak:
Kalea + pintxoak 1,50 €.

Euskal Herria AURRERA!!

GARAIZAR

IESUS GALINDEZ, Nº 10
Tel. 94 473 00 29 - GARAIZAR - BILBO

Agapi

Dekorazioa eta eskaiola
Sabai akustikoak eta eskaiolazko dekorazio deribatuak

Jose Migel Barandiaran Aierbe 1, 1 ezk
Tfnoa: 944336916 - Sakelekoa: 651709114
SANTUTXU - 48006 BILBO

riak, informatikoak, ... eta kaleko jende asko dabil, buru belarri, euren kontuak interneten denon esku- ra ipintzen. Izan ere, fenomeno horren lehenengo ezaugarria horixe da-eta: edonork egin ahal du. Doakoa da, interneteko konexioa daukan edozein ordenadoretik egin daiteke eta hiru minututan zeure bloga sortu zenezake.

Bigarren ezaugarria parte hartzeko erraztasunak dira. Izan ere, testu guztiei erantzuteko parada dauka internautak, horrela nahi izanez gero. Aukera horri esker debate itzelak gertatu izan dira blogetan.

GUREAK

Pauso horiek eginda daude mahatsorri asko honez gero. Euskal blogosferan gure auzoak ez dira gutxi. Zaharrenen artean, zer esana eman duen Josu Martinez kazetaria dago, Olegario Makarrovski goitizena azpian, bere Bloga, bloga Marinelarekin (kaiolumazikinez.blogspot.com) . Literatura, abestiak, gai sozialak, ... ironiaz eta letxe txarrez jorratuta. Literatura arlotik atera barik, Urtzi Urrutikoe- txekak be berea ireki berri du: urruti.blogspot.com. Bertan bertsolaritza, Alemania, liburuak, nazioarte- ko gaiak eduki ditu hizpide Txurdinagako idazle gazteak.

Horiek profesionalak dira, pentsatuko du baten batek. Bale, baina bestelakoak ere badira: Soloko- etxen bizi den Iñaki Peña medikua uztailen abia- razi zuen bere 'Ahuntzaren eguerdiko doministikua' (goiena.net/blogak/patxi). Eta Santutxuko Benito Fiz bere karrajuan (karrajua.blogspot.com) dabil azke- naldion euskaltegiako kontuak gora eta behera astintzen. Biak ala biak aspalditik internauta trebe- ak dira.

Baina gure blogariak gero eta gehiago dira. Aza- roan bertan Santutxuko Iratik berea eskegi du, lehe- nengo mezuan Sorgintxulo hizpide daukala (santu- txu.blogspot.com). Eta Txurdinagako Piruk ere hain une kritikoa Athletici eskaini dio bere zuzaranagusa.blogspot.com. Balientea, gizona! Merezki ez badu ere, BERTONeko hirugarren orriko editorialak pirateatzen dituen hackerrak ere bloga dauka, lapurtutako testuak eskegitzeko: oblojeiro.blogsp- ot.com



Eta bitakora pertsonalak ere ez dira gutxi. Egune- roko kontuak kontatzeko, gazteek parrandak edo maitasunak edo ametsak,... Horiek ugariak dira gaur egun eta gurean ere badadaude. Esate batera- ko, Iratxerena, (spaces.msn.com/members/galtza- gorri) ikasle mahatsorri baten bizipenak sarean batu dituen.

Gehiago ere badira, baina zuk zeuk topa behar- ko dituzu. Ah! Aurki.comek euskarazko blogetako mezu berrien abisua ematen du, zer dagoen jakin dezazun denetan mokoia sartu beharra eduki barik.



Polemika sarean

Azaroaren 18an Euskadi Irratiak blogiei buruzko tarte zabal bat egin zuen Arantxa Iturbek zuzen- dutako Arratsaldekoa saioan. Gonbidatueta- ko batzuk kezu agertu ziren programan gaiari eman- dako tratamenduarekin. Eta egun horietan euskal iritzigile batzuek prentsan agertutako iruzkinak ere mingarri suertatu zitzaizkien blogari batzuei. Hortik polemika handia sortu zen. Interesa dau- kanak Sustatu.com blogean edo Patxi Gaztelu- mendi kazetariarenean -gaztelumendi.org- topa- tuko ditu. Besteak beste, Luistxo Fernandez, Mar- kos Zapiain, Juan Luis Zabala eta Josu Landak euren iritziak laga dituzte. Teknofobiaz jokatzera leporatu diete blogariek euskal kazetari eta idazle batzuei. Azken horien artean, ostera, bada blogen munduari sektakeria dariona pentsatzen duena. Edota laster pasatuko den moda hutsa izatea. Batera zein bestera izan, euskarak tren hori garaz hartu du. Eta hori ez zaigu askotan gertatu... Hedabide berri baten aurrean gaude?



IZASKUN GUARROTXENA

"Euskal emakumeon eskubideen gutuna egin nahi dugu"

Futbolarien abizena daukan arren, ez dugu bere irudia kirol horrekin lotzen. Bera Bilgune Feministako bozeramalea da. Mahatsorri jaiotzez eta bizitzez, Euskal Herria dauka beti ikuspegian bere ibilbidean. Ipurdi geldiezina, atzo ikasle mugimenduan zebilen, gaur emakumeon borrokan zeharo murgilduta dihardu Uribarriko Izaskun Guarrotxena.

*Testua: Iñaso Perez.
Argazkiak: Iñigo Arzona*

Derrigorrezko galdera: zergatik Billgune Feministan?


Duela sei bat urte hasi nintzen. Beno, lehenago ikasle mugimenduan ibilia naiz. Hori izan zen nire lehenengo etapa herri honen erakuntzaren bidean lan egiten. Ikasle fasea amaituta, eta beti nire burua feministatzat izan dudana legez, garai hartan bazegoen proiektu bat, bazegoen gogo bat, eta 2000 urtean Leitzako Emakume Abertzaleen Topaketak antolatzeke lan taldean sartu nintzen eta hori izan zen nire abiapuntua feminismoaren munduan lan egiteko. Baina beno, beti izan naiz feminista, argi neukan arlo horretan lan egin nahi nuela, eta Bilgunea da sortu dugun proiektua.

Azalduko diguzu Bilgune Feminista zer den?

Euskal Herria feminista izateko hainbat emakumeok sortu dugun proiektua da. Leitzako Topaketen ondorioz planteatu zen eragile feminista bat izatea ezinbestekoa zela, hau da, emakumeon artean sare bat osatzea. Eta sare hori dinamizatzeko erakunde txiki bat, bi motatako lanak landuko dituenena. Bata, elkarlanaren bidean eragileekin bat egingo duena, eta bestea, mugimendu feministarekin. Eta mugimendu soziala den heinean, aldarrikapen maila bat izatearena. Hiru helburu nagusi ditu: patriarkatuaren ondorioak azalaraztea eta begien aurrean ipintzea berdintasun formalean bizi ei garen arren praktikan hori gezurra dela. Bigarrena, gizon eta emakumeon arteko harreman hierarkikoekin bukatzeko bidea zabaltzea. Eta hirugarrena, Euskal Herri feministari begirako pausuak ematea. Herria eraikitzen ari gara eta horretan ezinbestekoa da emakumeon eskubideak bermea egotea.

Berdinak izan behar gara gizon eta emakumeok?

Ez. Gure ustez ez gara berdinak. Guk beti erabiltzen dugu beste hitz bat: 'parekidetasuna'. Horrek esan nahi duena da ez garela berdinak, eta ezberdintasunean aukera berdinak behar direla, alegia, aukeratzeko eskubide osoa behar dugula emakumeok, momentu honetan ez dauka-



guna. Eduki behar dugula gure lekua eta gure espazioa leku guztietan eta geuk erabaki behar dugula nahi dugun edo ez dugun nahi. Nahi dugun jokatu ez dakit zein rola edo ez, baina guk izatea aukera hori, ezta? Ez dugu berdinak izan nahi, baizik eta aukeratu ahal izatea. Emakumeon eskubide berdinak lortzeko eraldaketa soziala ezinbestekoa dela ikusten dugu.

Ongizatearen gizarte honetan emakumeok ez gaude hain ondo. Zein faktore dira horren errudun? Beno, egia da sistema kapitalista daukan ezaugarrien artean sistema patriarkala izatearena dagoela. Eta

horretan, emakumeok bigarren mailako hiritarrak bezala gaude. Sistemari komeni zaio gu gauden roletan mantentzea, aurrezten duelako diru pilo bat, mantentzen duelako modu baten alekzionatuta bai emakumeak eta baita gizonak ere. Eta hortik ondorio nagusi bi datoz, emakumeen pobrezia eta une honetan oso larria den indarkeria, emakumeon aurkako indarkeria.

Bazirudien herri honetan indarkeri horretaz 'libratzen' ginela, behintzat, forma bortitzeneko kasuetan, baina...

Guk horren inguruan egiten dugun irakurketa da ez dela orain gehiago-

tan gertatzen dela, gehiago salatzen dela baizik. Kalera atera dira. Guk ikusten dugu egun gazteen artean erlazioak oso hjerarkikoak direla, eta oso bortitzak gainera, mutilek neskekin bereziki. Hortaz, oso datu adierazgarria da 2004 urtean bederatzi emakume hil zituztela eta aurten, 2005ean, beste bederatzi ditugula mahai gainean dagoeneko. Eta 2003ko datuak ikusita atera genuen ondorioa zen lau urteetan zazpi emakume hil zituztela. Orduan, hildako emakumeen kopurua igo da, eta aldiz, haien adina jaitsi da. Eta hori bai grabea! Egia da, hala ere, erantzun soziala handiagoa dena momentu honetan. Guk uste dugu bi

ildo jorratu behar direla: bat, erantzuna, denon ardura delako, eta bestetik prebentzioa ere landu behar da. Eta hezkuntza da ezinbesteko oinarria horretarako.

Emakumeon Mundu Martxa amaituta, emakumeok munduan daukagun behar nagusiak aipatzen dituen Gutuna idatzita... zelako lanetan murgilduko da Bilgunea gaurtik aurrera?

Emakumeon Mundu Martxa Euskal Herrira heldu zenean, Bilgune Feminista legez ez zen aritu baizik eta Plataforma baten barruan. Horretan esaten dugu orain daukagula mundu mailako gutun bat, baina oso oroko-

rra izan daiteke eta agian gure errealitatean kokatu behar dugu. Orduan, gure asmoa da -eta prozesu horretan hasi gara- Euskal Emakumeon Eskubideen Gutuna osatzea. Nazioarteko Gutun horretatik abiatuta, hemen zehaztea zeintzuk diren diskriminazio egoerak, zeintzuk diren ez ditugun eskubideak. Eta gero, emakume guztiak eztabaida polit bat egin ondoren, interpelazioa egin eskubide horiek bermatuak izan daitezten.

Nortzuk interpelatuko dituzue?


Eragile politikoekin, instituzioekin, eragile sozialekin, emakumeekin, jendartearekin, herritarrekin... hitz egingo dugu.

Goi-mailan geratuko da edota beste mailetara eramango duzue eztabaida eta Gutuna?

Gure asmoa da hemendik eta Martxoaren 8a arte zirriborroa idaztea emakumeen taldeen artean, hori adostu, eta Martxoaren 8tik aurrera guk deitzen dugun "Jendartearen" prozesua hasiko dugu. Prozesu hori emakumeekin egingo dugu, eta ahalginduko gara auzo guztietara heltzen, herri guztietara zabaltzen, eta behintzat, Gutuna ezagutzera ematea leku guztietan. Eta eztabaidatzea eta ekarpenak egitea. Eta bukatuko dugu jardunaldi feministak eginez, Euskal Herri osoko jendeak parte har dezan. Egia esan, gure indarrak direnak dira, baina egingo dugu.

Gure auzoei dagokienez, zeintzuk diren bertoko emakumeon beharrak?

Mahatserriko auzoetako egoerak oso ezberdinak dira. Ez da berdina Urbarri edo Begoña. Uste dut Urbarriko emakumeen bizi baldintzak okerragoak direla. Adibidez, lan esparruan, oso lan prekarioan egiten du jendeak eta gainera hor dago etorkinena afera, hemen badaudelako pilo bat. Bestetik eta orokorrean, nik uste dut badauzkagula beste arazo batzuk, gure ikusezintasun hori, esaterako. Ikusezin bihurtu gaituzte hainbat esparrutan eta ez daukagu gure espazio propioak. Badakit jaietan eta hainbat esparrutan lantzen dela, baina oraindik gure espazioa izateko asko geratzen zaigu.



Euskal Herria eta emakumeak, emakumeak eta Euskal Herria. Zein da Bilgunearen papera Nazio Eztatidagunetik abiatutako prozesuan?

Guk orain apustu inportantea daukagu. Alde batetik gaude Konponbidearen alde, Herri Kontsultaren alde eta horren inguruan bilatu behar dela uste dugu. Horregatik gaude OHKko sinatzaileen foroan. Baina bestaldetik guk badaukagu beste kezka bat: konponbide horretan defenditzen den bidean zein izango den emakumeon partehartzea. Horren ildotik hiru argudio erabiltzen ditugu: emakumeok subjektu politiko aktibo izateko zailtasunak, bizi dugun zapalkuntzaren ondorioz; bestetik, biztanleriaren erdia osatzen dugulako; eta hirugarrenik, mugimendu eta emakume feministok daukagun betebeharra, ez? partehartzeko eta gure ikuspegia hor sartzeko. Orduan, hori kontutan izanik, bere egunean erabaki genuen hor partehartzea. Aurten egingo ditugu gure hirugarren Topaketak (lehenengoak Leitzan, bigarrenak Eibarren izan ziren), Bilbon bertan,

eta gaia oso zehatza eta bakarra da: gatazkaren konponbidean emakumeon hitza zein den hausnartzea. Abenduaren 17an daukagu topaketa horiek eta deialdia egiten diegu emakume abertzale eta feminista guztiei eskakizun hori mahai gainean jartzeko.

Aurrerapenik eman da urte hauetan parekidetasunari eta emakumeen eskubideen inguruan?

Bilguneko kideok oso pozik gaude, alde batetik hasi ginenean bost ginelako eta momentu honetan gure sarea hamalau herri-eskualdetara irekitzen delako, bakoitzak bere nortasunarekin. Bestetik, izatera nazionala daukagulako, gure zailtasunekin. Baina egia da ere kristoren aurrerapausoak eman ditugula: komunikabideetan landu dugu estilo liburua, jaietako kanpainak eta jai batzordeekiko elkarlana, hezkuntzan lanean ari gara Euskal Kurrikulumarekin batera eta institutuetan... Eta oso garrantzitsuena dena: Euskal Herriak behar zuen erreferente feminista badagoela momentu honetan. Honen ildotik

ohar bat. Gu hedabideen arloa lantzen ari gara estilo liburuarekin, komunikazio sexistarik ez egiteko eta hedabide bakoitzak bere konpromisoak har ditzan. Baina askotan gertatzen zaigu, hedabideetako emakume askok parte hartzen duela prozesuan baina gero zuzendaritza taldeetan gizonak direla gehiengoa. Hori BERTONen ere gertatzen da! Baina zuekin ez daukagu kexarik.

Eta egindako lanak bere emaitzak eman ditu dagoeneko?
Bai. Oso pozik gaude emaitzekin.

Eta jende askorentzat erreferentea den Emakunderi dagokionez, ze iritzi duzue?

Ez dagoenean ezer, nahiz eta oso gutxi egin, badirudi asko egin dela. Emakunderi egin duen azken egin-kizun handia, egin duen gauzarik handiena, EAEko Berdintasun Legea da. Horrekin berdintasunerako tresna legal bat lortu dugulakoan daude, baina hori azken finean ez da horrela. Legea dugu bai, baina legea otsailean onartu zuten eta alardeak izan ditugu ekainean eta irailean eta emakumeak era normalizatuan parte hartu ezinik daude. Gainera, berez ez da legea, ez dauka lege formatua. Beraz, gaur egungo basamortuan zerbait egin du, hori ezin dugu ukatu. Baina neurriak ez dituzte betetzen eta planak ez dituzte betetzen: horrek esan nahi du ez daukatela ez bitarteko nahikorik, ez dirurik, ez ebaluazio metodorik, eta ez zaiela benetan hartzen kontutan. Orduan, agian errebisatu beharko da Emakunderi ze motatako lana egin beharko zen, momentu honetan egiten duten bakarra propaganda delako.

Zortzi galdera labur

Pelikula bat: aspaldian ez naiz joan zinemara, astirik ez eta.
Janari bat: barazki zale baina ez begetarianoa.
Liburu bat: 'La Herbolera'.
Mendia ala hondartza: Mendia

Bizitzeko leku bat: Bilbo
Kirol bat: Txirrindularitza
Izen bat: Aiora
Musikari bat: Mikel Laboa

ZER DERITZOKU FRANTZIAKO MATXINADARI?



MIREN (IRALA)
ANTZINEKO GATAZKA DELA USTE DUT. FRANTZIAN HEMEN BAINO ETORKIN GEHIAGO DAGO. ORAIN ARTE EZ DUTE EZER ERE EGIN ETA ORAIN HASI DA BORROKA.




JANIRE ETA IGONE (TXURDINAGA ETA SANTUTXU)
NORMALA DA, GHETTOETAN SARTU DUTE JENDEA ETA AZKENEAN EZTANDA EGIN DU. BOOM!!




ANA MARIA (SANTUTXU)
OSO TXARTO IRUDITZEN ZAIT ZELAN TRATATZEN DITUZTEN ETORKINEN ILOBAK. BESTEAK BEZALAKO FRANTSESAK DIRA.



MENTXU (IRALA)
OSO POLITIKA SOZIAL TXARRAREN ONDORIOA DA, IKUSTEKOA ZEN GERTATUKO ZELA. HAINBAT URTE ELKARREKIN EGON ETA GERO EZ DUTE BATERA BIZITZEN IKASI.



NAGORE (SANTUTXU)
ESKULAN MERKEA ESKATZEN DUGU ETA ETORKINAK EDERTO ONARTZEN DITUGU BAINA "SOBERAN" DAUDELA USTE DUGUNEAN, MARJINATU ETA GOSEZ HILTZERA KONDENATZEN DITUGU.



OLAITZ (BASAURI)
NORMALA IKUSTEN DUT. JAKIN BEHAR DA NOLAKO BALDINTZA SOZIALETAN BIZI DIREN, ZER ESKATZEN DUTEN ETA ZERGATIK. GAZTERIAK EZTANDA EGIN DU. ARRAZOIAK IKUSI BEHAR DIRA, EZ BAKARRIK ONDORIOAK.



KOKE (SANTUTXU)
EZBERDINTASUN SOZIAL HANDIAK DAUDENEAN JENDEAK EZTANDA EGITEN DU... ETA AUTOAK SOBERAN DAUDE.

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Hasi dira Sorgintxuloko gazteen kontrako epaiketak

Auzipetutako 80 gazteetatik lehenengo bederatziak epaitu zituzten azaroaren 10ean

Hil honetan urtea beteko da Bilboko Udalak Sorgintxulo hutsik laga zuenetik. Abenduaren 16an izan zen, hain justu. Bada, gaztetxearen aldeko protestetan parte hartutako gazteen kontrako epaiketak azaroan hasi dira. Bederatzi neska-mutil epaitu dituzte, baina beste 71 zain daude.

Testua: **Eneritz Ibarrondo**

Azaroaren 10ean, 2004ko urriaren 13an Bilboko Udaltxera sartu izanagatik bederatzi gazte epaitu zituzten. Protesta ekintza horretan parte hartu zuten 28 gazteei, ordenu publikoaren kontrako delitua leporatu diete. Auzipetutako adin nagusikoek, bi eta lau urte bitarteko espetxe zigorrari egiten diote aurre (oraindik ez dute epaiketarik izan). Adin txikikoen eskarera berriz, 30 orduz gizarte lanetan aritzea da, talde psikosozial batetatik pasa ostean. Azken horiena izan zen azaroaren 10ko epaiketa.



UDALETXEAN...
Epaiketa egiten zen bitartean, hainbat gazte Udaletxearen aurrean bildu ziren prentsaurreko bat eman eta kontzentrazio bat egiteko. BOMek (Bilboko Okupazioaren aldeko Mugimenduak) egin zuen deialdia, eta ondoren datozen epaiketa guztietarako deialdia dela adierazi zuten.

Bertan esan zuten, gazteak ez dira Udaltxera sartu izanagatik, ordenu publikoaren kontra egin izanagatik edo usurpazioagatik epaituak izaten ari, baizik eta beste bizi eredu batean sinesteagatik eta horretarako Gaztetxea tresna gisa erabili izanagatik.

HASIERA BAINO EZ
Epaiketa horrekin kontua ez da amaitu. Gazte gehiago dago epaiketaren zain Sorgintxuloren aldeko protestetan parte hartu izanagatik. Kaleratzearen aurkako bilkuretan esku hartu izanagatik 15 gazte daude auzipetuta. Urtarrilaren 5ean, Sorgintxulok sei urte bete behar zituenean, gaztetxera sartu izanagatik beste sei neskatila daude auziperatuta.

Horieta bi adin txikikoak dira, eta azaroaren 18an joan behar izan zuten zitazioaren bila. Iazko inauteri egunean beste lokal bat okupatu izanagatik, azkenik, beste 33 gazte dituzte auzipetuta. BBKk (okupatutako lokalaren jabeak) salaketa kendu zuen arren, fiskalak kasuarekin aurrera egitea erabaki du.

Epaiketa guztion gastu ekonomikoei aurre egiteko liburu kaleratuko du Sorgintxulok, 'Ametsen baratza'. Gaztetxearen itxiera gogorazteko aitzakia polita da eta epaiketari aurre egin ahal izateko laguntza bat izango da.

Bederatzi gazteen deklarazioarekin hasi zen epaiketa. Ondoren udaltzainek deklaratu zuten, eta azkenik lekukoek (udaltxeko ekintzan parte hartu zuten bi adin nagusi, gertaeraren nondik norakoak azaltzeko; eta gazteek auzoan burutzen zuten lanaz aritu ziren auzokide ezberdinak).
Gazteek salatu zutenaren arabera, epaiketa ez zen oso serioa izan. Udaltzainek, bionbo atzean deklaratu zuten. Abokatua kexatu zen, udaltzainek ez baitzuten horretarako arrazoirik eman. Gazteek udaltzainak ez ikusteko gainera, dena mugiarazi zuten eta ondorioz, epaitu bat edo beste behegainean jesarrita eman zituen epaiketak iraun zuen lau ordu eta laurdena.
Zigorrari dagokionez, 30 orduko lan soziala eskatu du fiskalak, udalaren egunerokotasuna apurtzea leporatuta. Abokatuak egunerokotasuna apurtu izana ukatu zuen, gazteak ez baitziren bulegoetara sartu. Abokatuak, gazteen absoltuzioa eskatu eta zigorraren kontraesana agerian utzi zuen. Bere esanetan, gazteek Sorgintxulon egiten zuten lan soziala, bilduz, antolatuz eta jendarteari alternatibak eskainiz.

Bertsolari txapelketako giroa, gori-gori


Finalerako txartelak salgai daude

Bertsolari txapelketa nagusia bere gorengo gradura iristekotan dago. Abenduaren 4an azken finalaurrea jokatu da eta hortik abenduaren 18ko finaleko izen zerrenda aterako da. Finala lehenengoz Bizkaian egingo da, Barakaldoko BECen hain zuzen, eta sarrerak salgai dagoz hala interneten nola hainbeste lekutan. Bilbon, Santutxuko Herriko Tabernan, Urretxindorra liburudendan eta Kafe Antzokian.

Argazkiak: **Bertsozale Elkarte**

Lerro hauek idatzi orduko oraindik ez dira finalaurretako bigarren saioak jokatu. Lehenengo bueltan izen batzuk nabarmendu ziren eta saio bikain-bikainak eskaini zituzten. Hendaia, Markina eta Gasteizko saioetako puntuak kontuan hartuta, ondoko hauek lirake finalerako txartela lortuko luketenak: Amets Arzallus, Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jon Maia, Aitor Mendiluze eta Amaia Agirre.

har daitezke edo, bestela, hainbeste lekutan dagoz salgai. Mahatserrian bertan, Santutxuko Herriko Tabernan eros daitezke. Bilbon badira beste saltoki bi: Kafe Antzokia eta Urretxindorra liburudenda.



Saio ederra egin zuen Igor Elortzak Markinan.

Hendaiako pilotalekuan giro itzela sortu zen.


Lepo bete zen frontoia Markinako saioan.

Hala ere, ez dago alde handirik eta bali-teke bigarren bueltak aldaketarik ekartzea. Amaia Agirrearen ostean beste bost bertsolari daude oso puntu gutxitara. Arkaitz Estiballesek Markinako saioan hartu zuen parte eta 712 puntu lortuta, lehenengo postuetatik urrun gelditu zen.

TXARTELAK
Abenduaren 18ko finalerako sarrerak interneten (txapelketanagusia.com)

Txartelak 25 euro balio du (18 euro bazkideentzat eta 6 euro umeentzat). Aukera dago BECen bertan egingo den bazkarirako txartela ere hartzea (18 euro gehiago). Bestela, hantxe bertan mahaiak paratuko dituzte bazkaria etxetik eramango dituzteentzat. Haurtzaindegi zerbitzua ere izango da, baina umeak bertan utzi gura dituenak aurretik abisua eman behar du (943217798).

Xabier Silveira eta Igor Muniategi txapelketako lehen saioan.



Unai Iturriagak saio bikaia eskaini zuen Hendaian.



www.txapelketanagusia.com

BERRIKARRIAK

BERRIKARRIAK





BEGOÑAN AZOKA.-

Azaroaren 5ean euskal base-rietako produktuen azoka egin zuten Begoñan, Polboretxe bidean, lur azpiko aparkalekuaren gainean. Herritar asko hurreratu zen hitzordu horretara. Salgai, besteak beste, barazkiak, okelak, intxaurrak, eztia, pateak eta beste produktu asko.

SAGARMINAGA URBANIZATUTA.-

Sagarminaga etxe multzoko sarbideak eta patioak urbanizatzeko lanak amaitu berri ditu Bilboko Udalak. Saneamendu sareak eta edateko ur-horniketa sareak berriztatu, argi berriak ipini, arrapalak egin eta lorontziak eta bestelako hiri altzariak jarri dituzte.



KAIERA SANTUTXUN.-

Azaroaren 4ean Kaiera Karmelo plazan egon zen, ehunka lagunuen aurrean. Jakinaenez, 18/98 sumarioko auzipetuen artean bada mahatsorri koadrila handi bat: Joxe Garcia Mijangos, Bigarren Ibarra, Jexux Mari Zalakain, Patxi Gundin, Ruben Nieto eta Olatz Eiguren. Auzia azaroaren 21ean hasi zen eta luze joko ei du.



SANTUTXUKO AITITEA HIL DA.-

Ehun eta hiru urte zituela hil da Valentín Aguirre San Vicente, adinagatik Santutxuko aititea esaten ziotena. Hileta-elizkizuna azaroaren 21ean egin zitzaion Santutxuko Karmelo elizan.



ERDARA EZABATZEN.-

Santutxuko EHEk azaroaren 19 eta 26 bitartean pegatinak banatu ditu 'Ezabaketa astea' deitu dutenaren barruan herritarrek erdara hutsezko seinale eta kartelak estal ditzaten. Berehala hasi dira agertzen euskara baztertu duten lokaletan.

HORTZMUGA TALDEA MALABARISTEN TOPAKETETAN.-

Hortzmuga kale antzerki talde mahatsorriak Koblakari izeneko Bilboko malabaristen nazioarteko topaketetan parte hartuko du. Topaketak abenduaren 2tik 11a bitartean egingo dituzte eta hainbeste artista bilduko dituzte.



BERRIKAK

BERRIKAK

OTXARKOAGAKO ARTATSE IKASTETXEAN PILOTALEKUA EGINGO DU BILBOKO UDALAK



Otxarkoagako Artatse eskola, goizeko lehen orduetan.

Otxarkoagako Artatse ikastetxeak pilotalekua edukiko du datorren urtean. Bilboko Udalak abenduan bertan hasiko ditu lanak eta bederatzi hilabete geroago erabilgarri jarriko ei dute. Frontoia ikastetxearentzat ez ezik, Otxarkoagako auzotar guztientzat ere zabalik egongo da.

Testua: **L. Albarez**
Argazkiak: **BERTON**

Artatse ikastetxean pilotalekua egitea erabaki du Bilboko Udalak. Obrak abenduan bertan hastekoak dira eta euren aurrekontua 395.471 eurokoa da. Lanon ardura Euskal XXI Construcciones enpresaren esku laga ditu Udalak. Ondo bidean, bederatzi hilabetetan amaitu egingo dute eta, ondorioz, 2006ko irailean frontoia erabiltzeko prest edukiko dute.

Udal arduradunen helburua da kirol instalazio berria egitea eta, bide batez, hirigintza arazo bat konpontzea. Izan ere, pilotalekuak ikastetxearen eta alboko lorategien artean dagoen 12 metroko lubana edo ezponda estaliko du.

Gaur egun alderdi hori urbanizatu barik dago, lohi eta sasiz beteta eta horren ondorioz zikintasun arazoak eragiten ditu. Ikastetxea eta lorategien artean 'traba' bat jarri behar zutela ikusita, udal arduradunek frontoia egitea erabaki dute. Horrela, lubanaren desnibela aprobetxatuko dute kirol ekipamendu hori egiteko.

Proiektuagaz aspalditik dabilta Udaletxean. Izan, lehenengo asmoa 2003ko martxokoa izan zen, orduantxe eskatu zioten-eta Obra eta Zerbitzuen sailari proiektua idazteko. Fase bitan egiteotan zeuden baina geroago dena batera egitea erabaki zuten. Horrek, ostera, atzerapena eragin zuen, hasierako fase bi horiek 2003 eta 2004 urteetan egitekoak zirelako.

Lan horrek frontoi berria ekarriko du, esan legez, eta gainera eskolako instalazioak hobetuko dituzte, beren-beregi jolastokiak. Gainera, Artatse ikastetxearen inguruan hesi berri bat paratuko dute.

AUZOTARREI ZABALIK

Edozelan be, pilotaleku berria ez da eskolarako eta eskolako umeentzat bakarrik izango. Udal arduradunek argi utzi dute Otxarkoagako herritar guztientzat erabilgarri egongo dela frontoi berria. Nabarmena da alderdi horretan kirol instalazio gutxi daudela eta gabezia hori konpontzen hasteko modua da frontoi berria auzotar guztien eskura jarzea.

Artatse Lehen Hezkuntzako eskola Julian Gaiarre etorbidearen buruan dago, Otxarkoagako auzo-etxetik hurbirean. Integrazio soziala lortzeko ahalegin handiak egin ditu eta egiten ditu ikastetxe horrek.

Bestalde, ez da frontoiarena azkenaldion Artatsek emandako notizia bakarra. Otsailean jakin genuenez, eguzki indarra aprobetxatzeko plakak jarri behar zituzten eskolan.

Hamabi ordu euskaraz abenduaren 3an

Bizkaiko Guraso elkarteak erronka polita bota du datorren abenduaren 3rako: 'Hamabi ordu euskaraz'. Horretarako programa bete-betea prestatu dute Arriaga antzokian, Arriaga plazan eta inguruetan egiteko. Tartean, zelan ez, mahatsorriak dabilta: Oihana Bartra bertsolaria, Patxo Telleria antzezlea,...

Euskararen Nazioarteko Egunean Bilbon euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatuko dute Bizkaiko gurasoen elkarteek eta, oro har, euskaltzaleek. Hona hemen egitaraua:

- 12:00etan ikus-entzunezkoak (Arriaga antzokiko erabilera anitzeko gelan) Gema Arrugaetaren 'Añamendia', Cristobal Burgosen 'Pirineo fantastikoa' eta 'Vivaldiren 4 urtarokak'.
- 'Kutsidazu bidea Ixabel' filmaren aurkezpen txikia
- 12:30etan umeentzako kale antzerkia (Arriaga plazan) Ten Pinpilinpauza: 'Zakarrontzietako abentura'
- 13:00etan kale antzerkia (Zazpi Kaleetatik) Ondalan: buruhandiak eta erraldoiak
- 14:00etan musika (Arriaga antzokiaren sarreran) Amaren alabak
- 14:30etan bertsolaritza (Boulevard jatetxean) Bertso bazkaria: 'Amaren sua'
- Xabier Amuriza, Oihana Bartra eta Fredi Paia Gai jartzailea: Leire Bilbao
- *Salneurria: 20 euro
- 16:00etan umeentzako tailerrak (Arriaga plazan) Panpotx Kultur Elkartea
- 17:00etan antzerkia (Arriaga antzokiko erabilera anitzeko gelan) Kandido Uranga: 'Henry Bengoa, Inventarium'
- 17:00etan kale antzerkia (Arriaga plazan) Goloka
- 18:00etan antzerkia (Arriaga antzokiko foayerrean) 'Ez dok hiru' Bikoteatro konpainia: 'Larru haizetara'
- 19:00etan kalejira (Zazpi Kaleetatik) Txatunga Bembe
- 20:00etan dantza (Arriaga Antzokia eta Bilboko Udalaren koprodukzioa) Maritzuli konpainia: 'Côté cour... côté jardin...' Sarrera: 4,80 - 10 euro.
- 23:00etan musika (Arriaga antzokian) JC Perez Live 'Hiriko istorioak'.
- Amaren alabak
- Harkaitz Cano idazlea. Sarrera:8 eta 10 euro.



urretxindorra
megadenda **9'30etatik 20'00etara**

- > Eskola-liburuak urte osoan
- > Literatura denontzat
- > Material didaktikoa
- > Musika eta bideoa

Iparagirre, 26 (48011 Bilbo)
Tfnoa: 94 4240228

urretxindorra@megadenda.com
www.megadenda.com

STXU
EUSKAL
ESKOLA

Iven a aprender euskara!
todos los horarios y niveles

Euskarak euskaldun egiten baitzaitu

P.Pernet,9 Santutxu 4731460
Arbidea,21 Txurdinaga 4117656

ESAITek federazio nazionalak nahi ditu euskal selekzio bakarrerako bidean

Kirolari mahatsorri askok babesa eman diote kanpaina horri

Kirol selekzioen bidean federazio nazionalak lortzea ezinbestekoa da ESAIT euskal selekzioaren aldeko iritzi taldearen ustez. Helburu hori lortzeko kirolarien artean sinadura bilketa abiatu du. Mahatsorri askok babesa eman diote dagoeneko.

Testua: **Iratxe Ruiz**

Argazkiak: **BERTON**

Euskal Selekzioen Aldeko Iritzi Taldea (ESAIT) orain arte minberatze lanetan ibili bada ere, pausoak beste norabide batean eman behar direla uste du. Euskal gizartearen alderdi zabal baten sostengua eduki badaukate baina hori ez omen da nahikoa. Gauzek bere horretan jarraitzen dute. Ahalegin denak euskal federazio nazionala lortzera bideratuko dituzte.



Santutxuko hockey taldeak babesa eman dio Esaiten kanpainari.

Egoitz Askasibarrek ESAITek abiatu berri duen kanpainaren nondik norakoan azaldu dizkigu. Sinadura bilketa baten bitartez gizartearen nahia zein den jakinarazi nahi zaie erakundeei. "Ezinbestekoa zaigu nazio mailako federazioak lortzea, zazpi herrialdeak bilduko lituzkeena. Gaur egun federazio probintzialak daude eta erkidego mailakoak, hots, EAEkoak eta Nafarroako erkidegoarena. Gure helburua da Iparraldeko kirolari batek, nafar, bizkaitar, gipuzkoar eta arabar batekin jokatu ahal izatea. Nazio mailan funtzionatu ahal izateko egitura juridiko berezia eskuratu beharko dute federazioek", azaldu du.

Duela urte pare bat Aztiker enpresari inkesta bat egitea eskatu zion ESAITek. Datuek argi utzi zuten euskal gizartearen ehuneko handi batek (%80) selekzio propioa aldarrikatzen zuela. "Emaitzak oso positiboak izan ziren, jendeak federazio nazionala nahi baitu!", nabarmendu du Askasibarrek.

Baina kirolari erreparatuz gero errealitatea desberdina dela ikus dezakegu. Esate baterako, Baionako

edota Iruñako xake jokalariek batek nazio mailako txapelketetan aritu daiteke. Halaber, rugbyaren nazioarteko mailan lehiatzen den selekzioa bada.

Azken 25 urteotan euskal selekzioen aldeko lan ugari egin bada ere aurrera pausoak ez dira esanguratsuak izan. Askasibarrek aitortzen duen moduan. Alde batetik, EAE mailako selekzio baten ametsen jarri direlako indar denak eta ez Euskal Herri mailakoan. Adibide moduan diosku lehen, lehiaketa 'vasco-navarro' egin ahal zela; egun, federazioen aldetik eta dirulaguntzen aldetik ezinezkoa bilakatu da. Honen bestez, atzera pausorik ere bada.

Gabonak ate joka dauden honetan, gogora ekarri behar dugu futbolako euskal selekzioaren urteroko partida. Iaz, ika-mika piztu zen, Nafarroako taldea ere antolatu zelako. Jokalari bakoitzak defendatu nahi zituen koloreak hautatu beharrean aurkitu zen.

HOCKEY ETA FUTBOLA
Euskal federazioa osatzaren aldeko

kirolarien sinaduren bila hasi da ESAIT. Gurean, Santutxu Hockey Taldearen (SHT) babesa lortu dute, baita futbol taldeena ere. Zentzu honetan, esan beharra dago, abenduaren 17ko asteburuan Txurdinagako kiroldegian antolatu dela euskal hockey selekzioaren norgehiagoka. Asturias eta Galizako selekzioak izango dituzte aurrean. Bestalde, Santo Tomas egunean Andorrako selekzioaren txapelketan

hartuko du parte.

Euskal hockey selekzioen mahatsorri ugari egongo da: lau entrenatzailetik bi Santutxukoak dira, Fermin Sanchez eta Ramon Ozamiz, hain justu. Gainera, Santutxu taldeko lau jokalariek deialdian egongo dira aurreratu digute, baita Donostiako Ibaiondoko atezain mahatsorria ere.

FESTA

Abenduaren 23an Bilboko Kafe Antzokian festa antolatu dute. Aldarrikapen jaialdi honetan bildutako sinadurak aurkeztuko dira, eta ESAITek bere proposamena azalduko die kirolariei eta gizarteri orokorrean. Ekitaldi ugari atondu da, ikus-entzunezkoen emandak bat eta Ene Bada taldearen kontzertua, besteak beste. Goi mailako kirolariak bertan izango direla iragarri dute. Hitzordua arratsaldeko 19,00etan.

Kirolari federatuek edo kirol klubek sinatu nahi izanez gero jo esait@euskalnet.net helbide elektronikora edo 685732965 telefonora.

OIZ (1026 M.) TRABAKUA (MALLABIA)

Bilbo-Donostia errepidetik joanez, Traña-Matiena igaro eta gero, Markinako errepidea hartuko dugu ezker aldean. Handik Trabakua mendatera (400 m.) helduko gara. Hantxe (A) utzi genuen kotxea, aparkaleku batean.


'Trabaku-Goiko' taberna pasatuz, ezkerretik errepide bat dago eta ehun metrota ezker aldean egurrezko hesi handi bat ere bai. (B) Hesi hori gurutzatzean, ezkerretatik irteten da basabide bat, baina guk nagusia eta zuzen jarraitzen dena hartuko dugu. Pinu artean (moztan ez dituzten bitartean noski) apur bat igoz, laster irtengo gara zabal handi batera.

Han ezker aldean eta lerroan jarrita, lau uso-postu (C) (uso-pasa garaian ehiztariek erabiltzen dituzte) ikusiko ditugu, zutabeen gainean, zuhaitz batzuetan eta lurtean. Horrez gain ikur zuriak ere agertzen dira. Ikurrek norabidea adierazten dute, beraz, zuzen eta gorantz aldapa oso gogorrean zehar, suebaki zabal batetik, ezker aldean pinuz eta eskuinetik izeiez igoko gara, eta azkenean mendiaren hegia gaingituko dugu.

Gailurretik eskuin alderantz abiatuz, laster Zengotitagana (812 m.) tontorra dago, (D). Gurutze bat eta kanpandanda moduko txartel kutxa bat dauka.

Beti ikur zuriak galdu gabe jarraituz, apur bat jaitziko gara landa batean gurutzegune modukoa ikusteko. Hortik apur bat igo behar da pinudi bat topatu arte. Pinudia zeharkatuko dugu eta irteten garenean ezker aldean ibarbide txiki batean, aterpe bat (E) eta iturri polit bat ikusiko ditugu.

Geroago muino bat gaingitu beharko dugu, handik aurrera astiro-astiro leku zabaletik igoko gara aspaldian Gernikako batzarretara deitzearen turuta jotzen zen Oiz mendi tontorreraino (1.026 m.) heltzeko. Haitz tartean dago tontorra, erpin geodesiko eta bi txartel kutxekin. Ondoan urrutitik ikusten diren errepikagailu piloak dago.



Guztira ordu bat eta erdi.

Itzultzean ibilbide bera egin genuen zati baten izan ezik. Lehen aipatu dugun iturrira heltzerakoan ez ginen pinudira sartu, baizik eta, zuzen jarraituz eta aterpea ezker aldean utzita, suebaki antzeko batetik, garai bat lortu arte. Handik zuzen eta apur bat gehiago ibiliz harrizko gurutze handi bat ikusten da inskripzioa eta txartel kutxa batekin. Gurutzabarri (820 m.) mendia da.

Gu ezkerretik, pinudiaren ondotik, jaitsi ginen bidegurutze moduko lekura irteteko. Gero Zengotitagana menditik zehar, igotzeko erabili genuen bidetik jaitsi ginen Trabakuaraino.

Sastrea
EDRO
IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO

Santutxu kalea, 37 www.bilbaoeb.com/Spedro
Telefonoa: 944 128 714 E-Mail: iban.fopez@navegalia.com

HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE

GABRIELARESTI, 30 4. G
TXURDINAGA

94 412 82 74

O.P.E.: 02/9/97

MESÓN
URETXE

Santutxuko poteo gunean


LUTXO EGIA

"BARRU-BARRUTIK IDATZI DUDAN NOBELA DA"

Bere bigarren nobela, 'Ezker hanka falta zuen', argitaratu berri du



Testua: Arrate Diez
Argazkiak: Iñigo Azkona



bertin



Manuel Rivas galiziar idazlea fikziora eraman eta, Iñaki Gerena Sestao River futbol taldeko kronikak idazten zituen herrenaren bitartez, Bilboko itsasadarrean barrena bidaia egingo du. Hori egin du Lutxo Egiak eta egun nekez irakurtzen den kirol kroniketako estilo literarioa jaso nahi du. Metafora eta irudiz beteriko nobela labur eta irakurterraza kaleratu du idazle mahatsorriak.

Susa argialetxearen eskutik plazaratu du bere nobela Egiak. Bertan bidaia bi kontatu ditu autoreak. "Alde batetik narratzaileak berak egindako bidaia dira. Batetik Galiziako herri txiki batera doa, Bilbon berari sortutako galdera batzuen erantzunen bila. Bi hitz dauzka eta badaki bi hitz horiekin esaldi edo epitafo bat... egin dezakeela, azken batean erantzun baten bila doa. Eta han erantzunak barik galdera berriak topatuko ditu, herri nahiko harrigarria aurkituko du. Hango bizilagun guztiek Manuel Rivas ezagutzen dute eta honek ipuinak kontatzen dizkie. Gainera honek han idatzi

du 'A lingua das bolboretas' ipuina. Beraz, Galiziara gauza baten bila joan eta beste batzuk topatu zituen. Han sortzen zaizkion galderak hona ekarriko dute berriro narratzailea. Atzera egindako bidaia da eta gazte denborara itzuliko da, 1982 urtera, hain zuzen, umea zen garaietara", azaldu du Egiak. Eleberriko bigarren bidaia 1982 urtean zentratzen da eta amaiera aldera gaur egunera salto egiten du. Itsasadarrekin irudi bat sortzen du Lutxok, Areatzako zubitik Abrarainoko bidaia, gartzetasunetik heldutasunera bidaia da, eta hau oso

erabakigarria da. "Bigarren istorioan lehen harremanak, lehen amodioak...istorio inizatiko bat islatu nahi dut. Dena ikasten duzu eta ikasitakoa ondo aplikatzean datza kontua, eta amaieran ikusten da narratzaileak zelan aplikatzen duen", argitu du. "Ideia batzuk nituen eta bat-batean burura etorri zitzaidan beharbada gaiarekin eta testu bat idatzi behar nuela, eta berez atera ziren ideiak eta narrazioa". Egileak zehaztu bezala, "ideia bizitzako une konplikatu xamar batean sortu zen eta eleberrian pasarte batzuk, ez dira autobiografikoak baina bai esperientziatik edaten dutenak. Hala ere, hortik aurrera fikzio bat eraiki dut".

aldetik aldaketarik nabarmentzen autoreak. Lutxo Egiaren esanetan "nobela hau laburragoa da, baina egitura aldetik ere ez da lineala. Oraingoan 'estilo poetiko' batera hurbiltzen ahalegindu naiz, batez ere, metaforak eta irudiak lantzen. Testu nahiko irakurterraza da, laburra baina intentsua. Barru barrutik idatzi dudana lana da eta hori ere estiloan nabaritzen da, tonuan eta metaforetan". Abiapuntu bezala 'traizioa' hartu du idazleak, beti ere, traizioa lagunari hutsik egitea bezala hartuta, ez haratago. Eta hortik istorioa Bilboko itsasadarrean ekarri du bere testuingurua delako, leku interesantea baita istorioa kokatzeko. Lutxo Egi beste nobela batean ari da lanean eta Elkarren Jaka beka jasota, datorren urterako kalean izango dugu irakurgai. Ordura arte, nobela berri honekin goza ezazue.

MUNDU TXIKIA

Kirol kronistei buruz ere ari da Lutxo 'Ezker hanka falta zuen' nobelan. "Gure aita hogeitaz aritu zen kirol kazetari gisa eta urte mordera frontoirik frontoi ibili zenez, gu askotan joaten ginen berarekin. Nik esperientzia hori futbolerari eraman dut, futbolaren mundu txikira eta hortik ere ibili dira kazetariak... baina nik batez ere jaso nahi izan dut garai bateko idazteko estiloa, egun nekez ikusten dena". Horrek ere badu bere zergatia. "Estilo literarioa kroniketan ez da ia ikusten, lehen errazagoa zen antzema-tea. Honek bere logika ere badauka, egun telebista zeharo nagusitu zaigu kiroletan".

'TRAIZIOA'
Bere lehen nobela 'Paperezko hegazkinak' eta honen artean ez du estilo

I D E A K

Dordoka
TABERNA
Pza. San Martín de la Ascensión
SANTUTXU

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Kafe
Mañari
Médico M. Pedro Cortés, 9
48006 BILBAO
Telf. 94 411 99 33

GOIAN S.C.L.
LAN BERTIKALAK
Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa
ANDAMIO BARIK
TELEFONOAK:
630 08 09 38
659 45 16 22

I D E A K

horoskopoa

- Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Bertsolari txapelketa nagusiaren finalak bero-bero jarri zaitu. Lastimea. Errima bat sikeran egiteko gauza bazina...
- Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Zeure senideek badakie gabon gabeen txistuagaz kaparradea emoteko entseguak egiten zabizela?
- Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Rokanrola, zerbeza eta... karakolak? Len ez dot uste holan zanik.
- Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Zer esan gendun lengo hilean? Orain bai, sinistu behar dozuz hemen esaneakoak.
- Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Zeure lagunen artean zurrumurrua zabaldu da. Zirt edo zart egin beharko dozu.
- Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Ea aurten Durangoko bisitan liburu eta disko azokaraino ailegaten zaran. Normalean bidean galtzen zara...
- Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.
Beti zabilz ezkontzarik ez dozula gura esaten, ez jatzuzala gustetan. Ba, batzuk gustu-gustukoak dozuz eta pozarren joaten zara: txarriboden txapelduna zara.
- Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Hotzari abantailak topaten dakien horietakoa zara: a zelako inddaba janak, eh lagun?
- Sagitaris:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Urtebete sorginen zuloa zarratu ebenetik eta oraindik ez zara zure onera etorri. Bueno, bueno, hain sorgin be ez zara!
- Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Olentzero ez dabil oparitarako. Ez badozu ikatza gura, zeozer pentsa beharko dozu.
- Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra,
Bertsolari txapelketa nagusiaren finala Barakaldon, lurrikarak Bermeon, Athletic azken lekuan,... hamaika gauza ikusteko jaio gara!
- Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Ez etsi! Eutsi! Aurrera atarako dogu-ta!

agenda

ABENDUAK 2-11
KOBILAKARI BILBOKO MALABARISTEN NAZIOARTEKO TOPAKETAK: IKUSKIZUNAK, TAILERRAK, MINTEGIAK, ...

ABENDUAK 3
HAMABI ORDU EUSKARAZ. ARRIAGA ANTZOKIA ETA PLAZA. EGUERDIKO HAMABIE-TATIK. BIGEK ANTOLATUTA.

ABENDUAK 7-11
DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA.

ABENDUAK 8-11
GAVARNIE. TXANGOIA. LIZARDI MENDI TALDEA. IZENA EMATE-KO, 695714360 EDO LIZARDIMT.COM

ABENDUAK 12
'LARRU HAIZETARA'. EZ DOK HIRU TALDEA. ANTZERKIA. KAFE ANTZOKIA.

ABENDUAK 14
'LARRU HAIZETARA'. EZ DOK HIRU TALDEA. ANTZERKIA. SARRIKO.

ABENDUAK 16
'AMETSEN BARATZA' LIBURUA-REN ERREZITALDIA. SORGINTXULOREN ITXIERAREN URTEURRENA. KARMELO PLAZAN. SANTUTXUKO GAZTE ASANBLADAK ANTOLATUTA.

ABENDUAK 18
BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIAREN FINALA. BARAKALDOKO BEC.

ABENDUAK 23
ESAITEN JAIA. KAFE ANTZOKIA. 19:00ETAN.

ABENDUAK 24
OLENTZARO GURE AUZOETAN.

udagoieneko



2005 6. edizioa

ostera

Antolatzailea



Topagunea
Euskara Elkarten Federazioa

Babesleak



Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila



Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Cultura



Logela - Addictos

KLONK

BREAK DANCE, IRUDI ETA RAP IKUSKIZUNA



BILBO
Arriaga Antzokia

abenduak 17
larunbata
20:00etan

sarrera : 10€

www.topagunea.org